

Ez Dok Amairu

Taldearen sorrera

- Hasierako pausuak

Ez da bat eta bakarra Ez Dok Amairuren sorreraren inguruan han eta hemen irakur daitekeen bertsioa. Hala ere, entzunenak Mikel Laboarengan dauka abiapuntua.

1964. urtean, Mikel Laboak, Bartzelonan medikuntza-praktikak egiten ari zela, Kataluniako *Nova Cançó* mugimendua ezagutu zuen. Urte berean Donostiara itzuli zenean, hemen mugimendu haren antzeko zerbait abian jartzearen ideia ibili zuen buruan. Ideiari bueltaka, orduko euskal panoraman bakarka zebiltzan kantariekin harremanak egiten hasi zen, denak talde batean biltzeko. Ordurako Mikel Laboak aterea zuen bere lehendabiziko diskoa, *Azken*, eta beraz gain, Lourdes Iriondo, Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Jose Antonio Villar eta Artze anaiak hasiak ziren euren ibilbidea jorratzen.

Hala, Mikel Laboa Benito Lertxundirekin jarri zen lehendabizi harremanetan. *La Voz de España* egunkarian ikusi zuen Benito, egunkari horrek antolatutako *Concurso de Artistas Noveles* lehiaketako *Canción moderna* sailean bigarren geratu zela-eta. Bestalde, Jarrai antzerki-taldekoek Urnietan kantari aritzen zen neska baten berri eman zioten Laboari; halaxe ezagutuko zuen Lourdes Iriondo. Julen Lekuonarekin jarri zen harremanetan segidan, garai hartan apaiz gazte; eta, Mikel, Lourdes Iriondorekin Sistiaga pintorearen etxera bisitan joandako batean, Joxean Artze txalaparta-jole eta poeta ezagutu zuen. Haiek ziren Ez Dok Amairu taldea osatuko zuten kide batzuekin egindako lehendabiziko harremanak.

Lehen pausuak emanda, 1965ean Mikel Laboa eta Xabier Antza, Jorge Oteizarengana joan ziren bisitan *Nova Cançó* mugimenduaren antzeko zerbaiten ideia azaltzera. Antza denez, egun hartantxe bururatu zitzaion eskultoreari talde edo

mugimendu hark izango zuen izena: Ez Dok Amairu. Martin Errementariaren ipuinean oinarritu zen Oteiza izen hori proposatzeko. Halaxe dio ipuin ezagunak:

“Martin errementaria burdin-gori bati eragoyon dinbi ta danba mallukaz. Burdin goriak yauks egin eta begi ondoan yo ei eban. Orduan Martinek amorruz esan eban: Deabruak eramango al nau!

Beingoan agertu yakon deabrua.

-Emen ni, ator nerekin.

-Nik ezaut bear i ezetako.

-Euk dei egin daustak.

-Dei egin badaut zer egiten eztakidala izango nayoan.

-Et et et! Neugaz etorri bear az.

-Ezetariko gogobagerik egin dodala!

-Nere eskuetatik irten nai badok, gauza bat egin bear izango dok oraintxe, amabi misterio andiak zeintzuk diren esan.

Ta asi zan deabrua galdezka ta Martin erantzuten.

-Martintxo, esaik bat

-Gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gayozak.

-Esaik bi.

-Erromako altarak bi, gure Jauna dok bat, berak salbatuko gayozak

-Esaik iru

-Iru trinidadak iru, Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbatuko gayozak.

-Esaik lau.

-Lau ebanjelistak lau, iru trinidadak iru, Erromako altarak bi...

-Esaik bost.

-Kristoren zauriak bost...

-Esaik sei.

-Zeruko argiak sei...

-Esaik zazpi.

-Zazpi sakramentuak...

-Esaik zortzi.

-Zortzirak dira zeruan...

-Esaik bederatzi.

-Bederatzi ordenak...

-Esaik amar.

-Amar mandamentuak...

-Esaik amaika.

-Amaika mila aingeruak...

-Esaik amabi.

-Amabi apostoluak, amaika mila aingeruak...

-Martintxo: esaik amairu.

-Ez dok amairu!

-Badok amairu!

-Oilarrak yoten yok munduan, aingeru ederrak zeruan, neure arimea lagatzen dautsat Andra Mariari altzoan.

Andra Mariaren izena entzun ebaneko kurrikaz igez egin eban deabruak”.

Euskal kulturaren malefizioa ere izan zitekeena irudikatzen zuen ipuin hark eta taldearen izenak: euskal kulturaren aurrerapausoak emateko ezintasuna, alegia. Izena Jorge Oteizak jarri zion, logotipoa, berriz, beste eskultore batek egin zuen, Remigio Mendiburu hondarribiarrak. Taldearentzako sortutako anagramak txalaparta bat irudikatzen zuen.

Hasierako topaketa informal haietan euskal kulturari buruzko kezka eta hausnarketak eduki ohi zituzten mintzagai. Hasiera hartan jende asko azaltzen zen bileretara, nahiz eta taldea gerora finkatu zen. Hor zebiltzan besteak beste, Julen Lekuona, Jose Antonio Villar, Irigarai anaiak, Artze anaiak, Zabala anaiak, Joan Mingo, Felix Sarasola, Benito Lertxundi, Lourdes Iriondo, Jean Paul Arregi, Xabier Lete...Baina ez norbanakoak bakarrik, taldeak ere baziren Ez Dok Amairun, Yoloak, Biurriak eta Oskarbi, esate baterako.

- Testuinguru kulturala eta taldearen helburua

Kantagintza berri baten inguruko lehen hausnarketak azaldu aurretik, 1963an, Jorge Oteiza eskultoreak, gerora zeresana emango zuen liburu bat idatzi zuen: *¡Quosque Tandem...! Interpretación estética del alma vasca*. Labur esanda, euskal kultura berpizteko beharra azaldu zuen Oteizak liburu hartan. Kulturaren alor ezberdinetan lan egin beharko zela azpimarratzen zuen. Kulturaren aurrera egitea proposatzen zuen euskal estetika eta nortasuna mantenduz eta sustatuz.

Testuinguru horretan kokatu beharko genuke Euskal Kantagintza Berria eta, beraz, Ez Dok Amairu taldea ere. Aitzitik, azken hau ez zen indarrak eta jakintza alorka batzeko saiakera bakarra izan. Eskulturan ere sortu ziren lan-taldeak. Gipuzkoan Gaur, Bizkaian Hemen, Araban Orain, Nafarroan Danok eta Iparraldean Baita. Horietaz gain, garai hartako testuinguru kulturean talde askok egin zuten lan, edo hasi zen lan egiten, euskal kultura berreskuratzeko helburuarekin: Argia dantza-taldea, Jarrai

antzerki-taldea, Zur-ots poeten bilkura, eta Fernando Larruquert eta Nestor Basterretxea *Pelotari* eta *Ama Lur* filmekin.

Ez Dok Amairuri dagokionean, euskal musika tradizionala aztertu, zabaldu eta gaurkotzea zen hasiera hartan helburu nagusia. Halaxe azaldu zuen Xabier Letek asmo hura Jakin aldizkariko 4. zenbakian (1977): “euskal kantaren mugimendua, zerbait bazen, mugimendu nahiko espontaneo bat izan zen. Politizatua, zalantzarik gabe, eta euskal nortasun kulturalaren erreperazio guztiz beharrezkoaz oso sentsibilizatua”.

Euskal abestiak galtzen ari zirela konturatu ziren, eta euskal kulturak bizirautea nahi bazuten, ahaztuak zeuden kantuei hautsa kentzea ezinbesteko eginbeharra zela iruditu zitzaizen Ez Dok Amairukoei. Hala ere, eta hori garrantzitsua zen arren, nabaria zen garai hartako gazteriak ez zuela aski kanta zahar haiekin, berriak ere behar zituela. Gainera, kantu berri horiek mamitsuak izan behar zuten, garai hartako kezkek azalduz entzulearengana errazago iritsiko zirenak. Hitzak eta musika zainduko zituztenak. Beste hitz batzuetan esanda, kalitatezkoak. Ez Dok Amairukoak ez zeuden espektakulu hutsa egitearen alde, euren jardunak mamitsua izan behar zuten halaberrez.

Kantu zaharrak berreskuratzea, kanta berriak zabaltzea eta tradizioa ezagutaraztea ziren bi hitzetan esanda Ez Dok Amairuren jardunaren helbururik nagusienak. Horrez gain, ordea, Europako eta Hego Amerikako kantarien abestiak ere euskaratu eta kantatzen zituzten. Era berean, lan handia egin zuten desagertzeko puntuan zeuden musika-tresnen berreskurapenean. Osagai horiek guztiak molde berriez nahastu eta emaitza ikuskizunetan erakusten zuten. Hala, kantagintza berria sortu nahi zuten, beti ere tradizioarekin uztartuaz, edo tradizioa kontuan hartuaz.

- **Lehendabiziko emanaldiak**

Ez Dok Amairuk Jarrai antzerki-taldearen eskutik egin zituen lehendabiziko bi emanaldiak. Lehendabizikoa Hernanin 1966ko urtarrilaren 9an eta bigarrena, Donostiako Victoria Eugenia antzokian hamalau egun beranduago, urtarrilaren 23an. Azken horretan, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Kemen taldea, Zuaznabar anaiak, Biurriak taldea, Julen Lekuona eta Mikel Bikondoa aritu ziren. Amaieran Fernando

Larruquert eta Nestor Basterretxearen *Pelotari* filma eman zuten. Ekitaldi arrakastatsua izan zen hura garaiko kroniken arabera.

Ez Dok Amairu taldearen aurkezpen ofiziala, ordea, urte bereko martxoan izan zen, 1966ko martxoaren 6an hain zuzen ere, Irungo Amaia aretoan. Emanaldiaren hasieran, eta taldeari jarritako izenaren jatorria azaltzeko, Xabier Letek Martin Errementariaren ipuina kontatu zuen *off* ahotsean. Emanaldia berriz, kantari andana baten esku egon zen: Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Bat eta bi taldea, Joxe Antonio Villar, Julen Lekuona, Oleskariak eta Artze anaiak. Hilabete pare bat lehenago Donostian egin bezala, *Pelotari* filmarekin amaitu zuten ikuskizuna.

Hurrengo urteetan zehar bata bestearen atzetik etorri ziren kontzertu eta emanaldiak. Erritmoa asko azkartu zen eta jaialdiak ugairitu. 1966ko martxoan Zumarragan eta Seguran aritu ziren; apirilean Ordizian; maiatzean Donibane Lohizunen eta Madrilan; eta ekainean Erreterian eta Orion. Emanaldi horietan guztietan kantari bertsuek hartzen zuten parte eta gehienetan jartzen zuten *Pelotari* filma amaitzeko. Ordurako hasia zen nabaritzen kantagintzaren susperraldia, eta aretoetako betekadak ziren horren lekuko.

Baga, biga, higa ikuskaria

Baga, biga, higa ikuskaria izan zen askoren ustez Ez Dok Amairu taldearen unerik gorenena. Mikel Laboaren izen bereko kanta eman zion izena ikuskariari. Josean Artze eta Jose Anjel Irigarairen zuzendaritzapean, Ez Dok Amairuk hamaika eskenatokitan eskaini zuen ikusleak txundituta utzi zituen ikuskari edo *sentikaria* (hala deitzen zion Josean Artzek).

Ikuskizuna gidoi bati lotua zegoen eta hori zen, hain zuzen ere, ordura arte egin zituzten emanaldiekin alderatuta ezberdintasunik handiena. Aurreko emanaldietan taldeko kideek bata bestearen atzetik kantatzen zuten, bakarka, binaka edo taldeka; baina inolako loturarik gabe. *Baga, biga, higan*, ordea, letren araberako gidioa zegoen. Horrez gain, kantuak ez ziren beste elementu asko zeuden. Mutil-dantzarekin hasi ohi zen ikuskaria eta ondoren sormen-bilduma zetorren: poemak, kantu zahar eta berriak,

toberaren, albokaren eta txalapartaren hotsa, Josean Artzeren *Lana eta Gizona* diapositiba-muntaia, etab. Horren ostean *Baga, biga, higa* kantua abesten zuten eta hasi bezala, mutil-dantzak ixten zuen emanaldia.

Horrekin guztiarekin garai hartako gizartearen isla lortu nahi zuten, orduko gaietan eta tradizioan oinarrituz, baina beti ere aurrera begira. Ikusikarietan banatu ohi zituzten esku-orrietan ondo laburbildu zuten zein zen sentikari haren filosofia (Enrique Ayerbe Echebarria, 2001):

“Egun ez duzu betiko eran egiten genuen jaialdirik idoroko. Egun, gisa berri batez azaltzen gaituzu. Orain arte, kantari baten atzetik bestea zetorrelarik zoan jaialdia. Hau, emanaldien egiteko era bat da; eta ez dugu baliosa ez denik esango, ez eta gutxiagorik ere. Baina sakonkiago egin behar direlakoan gaude, eta guk jarraituko dugu egiten. Baina egun, behar baten barrenean aurkitzen gara: atzokoan funtsatua eta biharkoarena. Ez dugu artalde batetan amildu nahi; aitzitik, taldearen barrenean arituz eta haren bidez, norberaren burua aberasten joan dadin nahi genuke. Eta horrela guztiona. Pentsatzen dugu, egungo antze-lana ez dela hainbat xoil-xoilik batek egin lezakeena, nola elkarrekikoa...”

1970ean estreinatu zuten *Baga, biga, higa* ikuskaria Portugaleten; 1971n Donostiako Trinitate plazan eta Iruñeko Gaiarre antzokian egon ziren. Baina Euskal Herritik kanpora ere iritsi ziren. Britainia, Paue eta Kataluniara, besteak beste. Bartzelonako emanaldia berezia izan zen; edo emanaldiak, pluralean, esan beharko genuke, hiru egun jarraietan eskaini baitzuten ikuskaria. 1971ko martxoaren 29, 30 eta 31n, hain zuzen ere.

Garai haietako kronika eta esanei kasu eginez gero, oso ikuskari arrakastatsua izan zen. Hala ere, disko batean eta bestean kaleratu diren kanta solteez gain, ez dago ikuskari hura dakarren grabaziorik, nahiz eta Fernando Larruquertek eta Nestor Basterretxeak grabazio ofiziala egin zuten, antza, gaur egunera arteko bidean galdua da nonbait.

Ez Dok Amairuren amaiera

Ez omen da ezer betiko izaten, eta ez zen ezberdin izan Ez Dok Amairurekin ere. Taldea desagitearen inguruan buruak adina aburu daude. Baina dirudienez, denbora aurrera joan ahala, kritikak azaldu eta testuinguru sozial eta politikoa aldatzearekin batera, nekea azaltzen hasi zen taldeko kideen artean. Pixkanaka, nekea taldea desagertzearaino nagusitu zen. 1972an izan zen hori.

Ez Dok Amairuren amaiera, ordea, ez zen bat-batekoa izan. 1970ean taldeak agiri bat argitaratu zuen Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkarietan euren aurka esaten zirenei erantzunez. Besteak beste, kantagintzaren profesionaltasunaren aldeko agiria zen hura, euren ustez amateurtasunak gutxi irauteaz gain ez baitzuen gaietan sakontzeko aukerarik ematen. Halaxe zioten besteak beste, agiri hartan:

“Lehen edozein leku ona ba zen jaialdi bat emateko, orain, askok horrela izan behar ba dute ere, beste askotan gauzak ahalik eta hobekien egin eta eman behar direlakoan gaude. Hasieran guk eskatutako dirua gutxi ba zen, gero gauzak hobekitu behar izan ditugunaren arabera, ahal den bezainbat eskatzen joan gara (ohart “ahal” esaten dugula). Baiña sekula ez dugu ez eta leku bat ere diruaren arazoarengatik utzi. Betor horrelakorik esan lezaigukeena”.

Taldekieek euren lanaren profesionalizazioa defendatzen zuten eta euren lana errekonozitua izan zedin eskatzen zuten, kantatzea askorentzat denbora-pasa zen garaian:

“Txantxetako, eta ez hain txantxetako gauzetan (jostaketak, pillota, zinea, futbola, dantza-tokiak, edariak, eta milla gauza gehiago) hainbeste diru xautzen den herrian, gezurra dirudi euskal kantarien aurka jazartea, jaialdi batengatik behar luketenaren erdiaren erdia eskatzen (?) dutelako, edo sarrera zortzi edo hamar duro kobratzen delako. Gureak gutxiago balio ote, ala? Denek merezi eta behar dute beren lanetik bizitzea; baten lanarekin, norberaren nortasuna aberasten ari da, bai eta gizartearena ere, eta aitzitik”.

Ez ziren lan eskakizunak edo eskakizun ekonomikoak bakarrik izan taldekideen ilusio-galtzea ekarri zutenak. Lehen esan bezala, testuingurua aldatzeak desadostasunak ekarri zituen kantarien artera eta erabaki batzuk hartu beharrak ere, urratu egin zuen kantarien batasuna. Esate baterako, *Euskal Kantu Herrikoa* (Enrique Ayerbe

Echebarria, 2001) liburuaren arabera, *Baga, biga, higa* ikuskaria argitaratu ez izanak ere izan zuen zerikusia amaiera hartan. Ez zen, seguru aski, desegitearen arrazoi nagusia izango, baina edonola ere, amaieran arnasten zen batasun-faltaren adibide zen. Antza denez, ikuskarian agertzen ziren kantu batzuk ez omen ziren argitaratzeko egokiak, lantzen zituzten gaiak zirela eta. Taldekideen artean bozketa egin omen zuten, ikuskaria (kanta horiek barne) argitaratu ala ez erabakitzeke. Ezezkoa atera zen, alegia ez zela argitaratuko, eta horrek, haserrea eragin zuen taldekideen artean.

Hala, azkenerako (sakoneko arrazoiak alde batetik eta azalekoago ezadostasunak bestetik) zaila izan zen taldekideentzat koherentzia artistiko-sozial eta politikoa mantentzea eta 1972tik aurrera bakoitzak, bakarka edo taldeka, bere ibilbidea jarraitu zuen.

Bi ibilbide: Zazpiribai eta Ikimilikiliklik

1972an, Ez Dok Amairu bukatu egin zen, baina ez euskal kantagintza. Eraldatu egin zen, beste bide batzuk hartu. Ez Dok Amairuren inguruan ibilitako kantari eta artistek ibilbide ezberdinak hartu zituzten. Batzuek ez zuten kantagintzan jarraitu, beste batzuek bakarka edo taldeetan bilduz proiektu berriak aurrera eramateari ekin zioten. Zazpiribai eta Ikimilikiliklik taldeak dira horietako bi.

Zazpiribai taldearen eta kideek sortutako ikuskariaren izena zen aldi berean. Besteak beste ondorengo hauek izan ziren talde horretako partaide: Lourdes Iriondo, Xabier Lete, Benito Lertxundi, Pantxoa eta Peio, Pantxika, Iñaki Urtizberea, Ugutz Robles-Arangiz eta Manex Pagola. Iparraldean sortu zen Zazpiribai eta Iparraldean bakarrik plazaratu ahal izan zuten euren lana, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak eskatuta, debekatuta baitzuten Hegoaldean aritzea.

Baionako antzoki munizipalean egin zuten lehendabiziko agerraldia eta Hendaiaiko Varietés aretoan bigarrena, 1973ko apirilaren 17an. *Baga, biga, higa* ikuskariaren antzeko eskema zeukan Zazpiribaik. Hala, kanta zahar eta berriak, deklamazioa eta soinu-tresna tradizionalen erabilera ziren ikuskari haren elementu nagusiak.

Ikimilikiliklik ikuskaria Artze anaiek eta Laboak sortu zuten, baina, Joan Mari eta Jose Luis Zabala anaiek ere hartu zuten parte. 1976ko Veneziako bienalean ere eman zuten ikuskaria. Ikus-entzunezkoek pisu handia zuten; hala, poema, hitz-joko eta kantuez gain, diapositibak eta Jose Luis Zumetaren lanak ere erakusten zituzten. Ez dago ikuskari haren grabaziorik, baina Mikel Laboaren diskoetan agertzen dira, emanaldi haietan kantatu ohi zituzten abestiak: *Baga, biga, higa, Bereterretxeren kantoria, Izarren hautsa, Gure bazterrak*, etab.